FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO

# 50 URTE

## ARABAKO INDUSTRIAREN ESKUTIK






**FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO**

# 50 URTE

## ARABAKO INDUSTRIAREN ESKUTIK

Argitalpen hau komiki formatuko bertsio bat da, izenburu berberarekin **Gasteizko Montehermoso Kulturuneko Ur Biltegi Zaharraren** aretoan 2019an egindako erakusketarena.

Ikerketa, testuak eta erakusketaren komisariotza: **Antonio Rivera** eta **Antonio Altarriba**.
Marrazkiak eta komikiaren gidoi egokitua: **Mauro Entrialgo**.
Maketazioa: **David Molina**.
Itzulpena eta zuzenketa: **Saioa Uzquiano**.
Argitaratzailea eta ekoizlea: **Fundación Laboral San Prudencio**.

Azal gogorreko alearen lehenengo argitalpena: Gasteiz, 2019ko urtarrila.

Inprimatzailea: **Arabako Foru Aldundiaren Inprimategia**.
ISBN: 978-84-09-06093-1
Lege Gordailua: VI 982-2018

Testuen ©: **Antonio Rivera**, **Antonio Altarriba** eta **Mauro Entrialgo**
Marrazkien ©: **Mauro Entrialgo**
Argitaraldi honen ©: **Fundación Laboral San Prudencio**

# MELODIA KOLEKTIBOA

Liburu hau Fundación Laboral San Prudencioren 50. urteurrena ospatzeko oroitzapenezko ekitaldi multzoaren baitan argitaratzen da. Ekitaldi horiekin guztiekin aldi baten amaiera ospatzen da, hain zuzen, etorkizuneko ikuspegi berrietara irekita mantentzen den prozesu baten baitan kokatzen den aldiarena.

La Fundaciónen patronatua eta gerentzia osatzen duten pertsonek agertutako prestasuna izan zen liburu honen argitalpenaren eta haren osagarria den erakusketaren abiapuntua. Izan ere, atzera begirako lan bat egin nahi izan zuten, joan den mendeko 50.eko hamarkadatik aurrera gertatu zen bultzada industrializatzailearen ostean Arabak bizi izan zuen eraldaketa sozial handia islatzeko, hura izan baitzen Fundación Laboral San Prudencioren sorburu eta jatorri. Gure erakundea, ondoz ondoko belaunaldien lanari esker, irabazi-asmorik gabeko euskal erakunde nagusi bihurtzera heldu da, Enpresen Gizarte Erantzukizunaren garapena eta ezarpenaren alde lan egiten duena, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta langileen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko tresna gisa.Gaur egun, Arabako ia 400 enpresa eta 32.000 langile baino gehiago biltzen ditu, eta horien familiekin 80.000 bat kide daude, Arabako biztanleriaren laurdena izanik.

La Fundación, bokazioz arabarra denak, bertako talentuaren eskuetan jarri du atzera begirakoa burutzeko helburua, bere bi bariazioetan: Argitalpena eta Erakusketa. Liburua eta Erakusketa, bi formatu narratibo dira, eta horien bidez publiko orori helarazi nahi diogu La Fundaciónen denboraren pasabidearen kontakizuna, Arabako industriaren eskutik eta berrogeita hamargarren urteurrena osatzen duten hamarkaden testuinguruarekin solasa eginez izan duenarena.

Lehena, obra hau, Antonio Riverarekin eta Antonio Altarribarekin batera kontzeptualizatua, Mauro Entrialgok garatu du. Entrialgo duela bi hamarkada dabil El Jueves aldizkarian lanean eta TMEO aldizkariaren kide fundatzailea da. Berrogeita hamar komiki liburu baino gehiago argitaratu ditu, dozena erdi disko grabatu ditu, lau antzezlan estreinatu ditu eta film luze komertzial bat idatzi du.

Mauro Entrialgorekin, 9. artera jo dugu, komikiaren narratibak iraganaren egituraketa errazten duten hainbat kode biltzen baititu, haren izaera dinamikoari esker, adin guztietako irakurleentzat erakargarri eginez. Liburu honetan egilearen talentu narratiboa islatuta ikusiko dute irakurleek: binetetan une honetara nola heldu garen eta etorkizun hurbilerako sortu ditugun itxaropenak islatzen ditu.

Bigarrena, Erakusketa, Antonio Rivera eta Antonio Altarribaren elkarlanaren emaitza da. Antonio Rivera Historia Garaikideko katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU). Probintzia honen azken bi mendeei buruz luze egin du lan, “La ciudad levítica. Vitoria, 1876-1936” lanetik hasi eta “Historia de Álava” lanera arte; Antonio Altarriba, Frantses Literaturako katedraduna da EHUn, eta baita idazlea eta gidoilaria ere.

Erakusketan, “Antonioek”, objektua eta bisitaria biltzeko espazio bat zehaztu dute, harreman sentsorial bat ezar dadin, non adinekoek, memoriaren bidez, bizitako denborekin berriro topo egingo duten, eta gazteenak, oroitzapenik ez dutenez, iraganaren ulermenera hurbilduko diren.

Gure berrogeita hamargarren urteurrena dela-eta behartuta gaude geure buruari begiratzera: geure buruarekin dugun hitzordua da, barrura begiratzekoa eta hazkunde-erronka berriei begirako indarrak hartzekoa. Liburua eta erakusketa melodia kolektibo bat dira, pertsona, objektu, gertaeren, eta abarren puzzle handia, eta horien bitartez geure hastapenetara garamatzan bidean itzultzen gara, bide horretatik beretik egunera arte itzuliz.

Irakurle hori, liburu hau, liburu guztiak bezala, ez dago bukatuta, inprentatik atera baino ez da egin. Zure eskuetara heltzen denean osatzen hasiko da, zure oroimeneko txokoetatik ateratzen den kontakizun berri bat gogora ekartzen duzunean.

Gure esker ona adierazi nahi diegu egileei, talentua, denbora eta ahalegina eskaini baitituzte, orain dela 50 urte hasitako abentura komuna partekatuz hemen elkar gaitezen. Hainbat belaunalditako enpresa eta langileak dira abentura horren protagonistak, etengabeko aldaketak, hazkundea, ingurumen mehatxuak, hiri-zabalkundea eta hazkunde demografikoa ezaugarri izan dituen aro batean haien aztarna utzi dutenak.

**Yolanda Berasategui**

## IRAGANA: HERRI BITXI HORI

Gehienek ez dakite zertan dihardugun historialariok. Aita hil zenean, ez zuen oso argi semeak nola ateratzen zuen bizimodua. Ongi moldatzen zela ikusten zuen, baina agian lapurra ere izan zitekeen. Eta arrazoi zuen. Nolabait, historialariok iragana lapurtu eta orainaldira ekartzen dugu. Baina ez dugu ekartzen gertatu zen bezalaxe (ezinezkoa baita), aldiz, berregin egiten dugu utzi dizkigun arrastoak baliatuta, eta berriz asmatzen dugu (zehaztasunez, egia bilatuz eta hori guztia eginez).

Egia esanda, historialariak herri arrotz batean bizitzeko zortea (eta arriskua) du: dagoeneko existitzen ez den eta hilda dagoen lurralde bat da (bere logikak dituena), bizitza berri bat hartzen duena, historialariak orainaldian baliagarritasun batez hornitzen duenean.



Jarraian dagoen historia dagoeneko existitzen ez den garai batena da; izan ere, haren arrastoak ia guztiz desagertu dira denboraren poderioz. Duela berrogeita hamar urte eta gehiago, bizitza gaur egun baino zailagoa zen. Jendeak lan asko egiten zuen eta ez zuen asko irabazten. Kontu hori koadratzeko, oinarrizko produktuak beste saltokietan baino merkeago saltzen zituzten saltoki txiki batzuk ireki zituzten. Leku xumeak ziren, jende xumearentzat egindakoak eta, horregatik, arrasto gutxi utzi zituzten. Nekez aurki ditzakegu ireki ziren uneko lekukotzak. Badirudi garaiko agintariak ez zirela inaugurazio horietara gerturatu. Zalaparta handirik gabe aritu ziren, apal haietatik egunero milaka familia igarotzen baziren ere.

Historialariak iraganak utzitakoa miatu eta berriz osatzen du. Kasu honetan, ekonomato haren administrazio kontseiluaren liburuak baino ez genituen aurkitu. Literatura idorra da, errepikakorra, “antiliteratura”. Iraganeko pusketa txiki batzuetatik abiatuta kontakizun bat osatzeko zereginean, trebatuta dagoenak soilik atera dezake istorio bat material hain zakarretik. Horretan datza ogibideak: akta aspergarrien segida batekin, pertsona batzuen historia bilbatzen da; kasu honetan, haien oinarrizko beharrei erantzuten diete, milaka erabiltzaile dituen enpresa bat antolatzen dute, hilero gastu eta diru-sarreren balantzeak orekatzen dituzte, eskaintza horrekin maltzurkeriatan aritzen dira eta onura bat ateratzen saiatzen dira, erabilera oker horiek geldiarazten saiatzen dira... Gaur egun ia ulertezinak gertatzen zaizkigun garai hartako bizitza eta jokaeren koadro bat da lerro horietan deskribatzen dena, argitara irakurtzeko gai bagara eta, une batez, garai hartako logikak gure egiteko gai bagara. Gero, hortik ateratzen da hemen kontatuko dugunaren gidoia. Ikus daitekeen bezala, dibertigarria ere izan daiteke, solas bat ere badelako, errealitatetik geratzen denaren eta alde batera utzitakoaren hutsuneak betetzeko fikzioaren artekoa.

Jarraian dagoena, eta Mauro Entrialgoren binetekin batera doan erakusketan ikus daitekeena, beste garai bateko jendearen bizitza da, gure arazo berberak zituzten pertsonena. Arazoa, kasu honetan hauxe zen: nola mantendu proiektu baten erabilgarritasuna ingurumeko baldintzak aldatu direnean eta proiektua zaharkituta geratu denean. Gizakion asmamena zailtasunentzako irtenbide bat bilatzen. Gaur egungo istorio zahar bat.

**Antonio Rivera**

## DENEK UREZTATZEN DUTEN ZUHAITZA

Eguneroko historia, albisteetan ere agertzen ez dena, ahalegin isilez, kolaborazio anonimoz, erabaki ezezagunez, ia inoiz txalotu gabeko garaipenez eta –onar dezagun- bakarka nork bere gain onartutako porrotez egina dago. Lehen begiratuan epikoa ez bada ere, borroka gogorra da, aurrerapenak eta atzerakadak ditu, zauriak eta orbainak, eta, batzuetan, baita loa kentzen diguten beldurrak ere. Gerra konbentzional batean bezala, estrategiak hartzera, helburuak ezartzera eta garaipenean konfiantza izatera behartzen gaitu. Biziraupena, oparotasuna eta zoriontasun zati bat, txikia bada ere, borroka horren mende daude. Egunero borrokatu behar dugu eta behartu egiten gaitu behin eta berriz egitera eta, batzuetan, errepikatzera; horregatik, fokuetatik urrun dagoelako eta ia inork txalotzen ez duelako, errutinatzat hartzen dugu. Diskrezioan gertatzen da, tronpetarik gabe eta banderarik zabaldu gabe... Azkenean, ez da batere re apartekoa eta askozaz gutxiago nabarmentzen da. Hala ere, arretaz ikuste hutsarekin, ulertuko dugu balentriaz, lorpenez eta, zoritxarreko garaietan, hondamendiaren aurkako babesez betea dagoela. Mota horretako istorioak dira gure bizitzak. Baina oso gutxik kontatzen dituzte.

Zenbait erakundek egiteko gisa ezarri diote haien buruari borroka honetan guri laguntzea, gure eguneroko borroketan errefortzu izatekoa. Gurutze Gorri antzeko bat dira, ekonomiaren desbideratzeen kalteak arintzeko, enpresen bilakaeretatik probetxua ateratzeko, gure inbertsio-ekimenak babesteko edo gure ahulezia unetan laguntzeko. Dena, ekaitz bortitzek ekortutako laneko ozeanoan flotatzen jarraitu ahal izateko. Fundación Laboral San Prudencio erakunde horietako bat da. Berrogeita hamar urte daramatza hori egiten eta, denbora horretan, hainbat fasetatik igaro da, beti ere, fronte baten premia aldakorretara egokitzen ahaleginduz, fronte horretan arriskatzen baitugu bizitza edo, bestela esanda, bertan ateratzen baitugu bizimodua. Fundación Laboral San Prudencio ez da gaurkotasun albisteetako lehen lerroetan egon, baina, bere garrantziaren erakusgarri, denok ezagutzen dugu, eta askok, modu batean edo bestean, haren onurak jaso ditugu. Horregatik, urtebetetze honetan, omenaldia merezi du, eta omenaldia ez bada, merezi du behintzat bere ibilbidea markatu duten mugarri nagusiak oroitzea.

Baina hemen ez dago tropen hedapenik, batailarik, eztandarik, manifestazio masiborik eta ezta lider handien gailurreko bilerarik ere. Ez da ikuskizun-historia, zerbait apalagoa baizik, istorio bat edo, hobeto esanda, aurrera ateratzeari buruzko istorioak. Horrexegatik, ez da erraza kontatzea eta, are gutxiago, dokumentatzea. Mauro Entrialgok irudietan jartzea lortu du, hainbeste baliabide dituen eta maisutasunez darabilen bitartekoa erabiliz, alegia, komikia erabiliz. Modu argi, adierazkor eta koloristan marrazten du ezagut dezakegun istorioa, izan ere, denok baikara haren parte, neurri handiago edo txikiagoan. Binetak antzeko ibilbidea duen erakusketaren osagarria dira. Bi kronikak, komikiarena eta erakusketarena, hain arabarra den sinbolo horren inguruan elkartzen dira, zuhaitzaren inguruan, hain zuzen. Itzala ez ezik, fruituak ere ematen ditu zuhaitz horrek. Egia da ez dela bizitzaren zuhaitza, baina bizimodua ateratzen laguntzen digun zuhaitza da, Fundación Laboral San Prudencioren zuhaitza. Orain arte egin dugun bezala, ureztatzen jarraitzen badugu, biziraungo duen zuhaitza da.

**Antonio Altarriba**



1. KAPITULUA

# HORRELA SORTU ZEN







1958ko lege-dekretu batek behartu egiten ditu 500 langiletik gorako enpresak laneko ekonomato bat sortzera, langileei oinarrizko produktu hauek eskaintzeko:
Olioa
Xaboia
Azukrea
Arroza
Urdaia
Irina
Babarrunak
Dilistak
Garbantzuak
Bakailaoa
Patatak
Arrautzak
Txokolateak
Gailetak
Txarkuteria eta hestebeteak
Kontserbak
Kafea eta ordezkoak
Esne kondentsatua
Gaztak
Gurina
Mahaiko ardo arruntak
Arrain lehortuak eta arrain-kontserbak
Zopatarako pastak
Makarroiak eta antzekoak
Etxean erabiltzeko ikatza
Lanerako arropak eta oinetakoak
Oinetako merkeak
Oinarrizko oihalak eta prestatutakoak




Metalúrgica de AJURIAk dekretuari aurrea hartu zion eta urtebete lehenago zabaldu zuen bere ekonomatoa ADRIANO VI.a kalean.
IMOSAk, DKW erako furgoneta alemaniar ospetsuen fabrikatzaileak, 1961ean zabaldu zuen berea, ALIn zituen instalazioen ondoan.
MICHELINek berea 1967an inauguratu zuen, lantegi barruan.
MICHELIN
Urte berean...
AREITIO
IMOSA
FORJAS
AJURIA
AIFA
...elkartu egin ziren AIFA sortzeko, hau da, SIMON DE ANDA kalean zegoen ekonomatoa sortzeko.
Lehenengo SAN PRUDENCIO ekonomatoa, la FUNDACIÓNen hazia, 1969ko maiatzaren 24an inauguratu zuten, TOMAS ZUMARRAGA DOHATSUAren kaleko 4.ean.
1'20 2'50 5'60 4'20
15 13'80 6 7'70 6
Eta 1978an, eraikuntzaren sektoreko enpresek EGA (Economatos Generales Alaveses) sortu eta ARRIAGAKO KOFRADIAN ireki zuten lokala.
EGA



Baina horietatik guztietatik SAN PRUDENCIO ekonomatoa izan zen ibilbiderik luzeena izango zuena. Eratu zen unean, honako enpresa hauek osatzen zuten erakundea:
Esmaltaciones SAN IGNACIO
HERACLIO FOURNIER
ARAN-ZÁBAL
ECHEVARRÍA Hermanos
ARREGUI
HERZA
BH
LLAMA GABILONDO
AZO
TELEFÓNICA
OLAZÁBAL HUARTE
CARRERA y Cía
KEMEN Industrial
ECHAURI
MOVESA
Explosivos ALAVESES
Tornillería PLACENCIA
CIEPSA
Industrias ARRIETA
FABRIL Mecánica Alavesa
Talleres de BETOÑO
Industrial ECHEARZA
GENERAL de Sondeos
Hijos de ORBEA
VALLCIA
SANCHIZ BUENO
Plásticos GATEOR
UNIDECOR
LA PREVISORA
Sucesores de AGUIRRE






Ekonomatoan erosita asko aurrezten zen.
Ekonomatoko onuradun bakoitzak identifikatzeko eta erosketak egin ahal izateko liburuxka bat zuen.
Saltokiak produktuak handizka erosten zituen prezio abantailatsuan eta, gero, onuradunari saltzen zizkion, baita ordaindutakoa baino prezio txikiagoan ere.
Adibidez,
1973AN
Erosteko prezioa hau zen:
Eta saltzekoa:
OLIO LITROA
9 + 
45,50 pezeta
8 +
41 pezeta
ARDO LITROA
2 + 2
12 pezeta
2
10 pezeta
Erosteko eta saltzeko prezioaren artean zegoen aldea konpentsatzeko, enpresek langileko kopuru bat ordaintzen zioten la FUNDACIÓNi.



2. KAPITULUA
HORRELA HAZI ZEN
Hirurogeita hamarreko hamarkada eta laurogeiko hamarkada hasiera ekonomatoen urrezko urteak izan ziren, eta SAN PRUDENCIOrena etengabean hazi zen.
ONURADUN KOPURUAK GORA EGIN ZUEN...
Eratu eta gutxira, ekonomatoan industria eta zerbitzuetako langile gehiago sartzeaz gainera, administrazioak ere sartu ziren, adibidez...
Udaleko funtzionarioak
Kirol instalazioetako langileak
Ikastetxeetako irakasleak
Garbiketa lanetako langileak
1989an 30.000 titular zituen, 1991n 37.000 eta 1994an 40.000.
Hirurogeita hamarreko hamarkada erdialdetik, eta hazkunde demografikoa gertatu bazen ere, onuradun kopurua biztanleriaren erdia izatera iritsi zen ia.
SALTOKI KOPURUAK GORA EGIN ZUEN...
Hainbat urtez, la FUNDACIÓN eta beste erakunde batzuen ekonomatoak egon ziren hirian, baina helburuak eta funtzionamendua antzekoak zirenez, bazirudien bat-egitea zela hartuko zuten bidea.
1989an SAN PRUDENCIOk AIFA xurgatu zuen; 1991n EGA ekonomatoa eta MICHELINen ekonomatoa xurgatu zituen. Bere gain hartu zuen, beraz, saltoki horien guztien kudeaketa.
FUNDACIÓN SAN PRUDENCIOren ekonomatoa 500m2ko merkataritza-gune batekin hasi zen...
...eta, amaieran, guztira ia 10.000 m2 zituzten hamabi saltegi zituen.


SALTOKI KIDETU KOPURUAK GORA EGIN ZUEN...
Zuzenean kudeatutako saltegiez gain, hitzarmenen bitartez la FUNDACIÓNekin elkarlana egiten amaitu zuten bertako saltokiak zeuden.
Horrela, deskontu bereziak eskaintzen zizkieten haien saltokietan ekonomatoko liburuxkak aurkezten zituzten onuradunei.
Hiriko etxetresna elektronikoen enpresa garrantzitsu askok bat egin zuten la Fundación SAN PRUDENCIOren erosketa-sarearekin, besteak beste, MOTILOA, OTÁLORA, EXTRAMIANA, CREVITOR edo RADIO ORTEGAk.
Eta ez soilik sektore horretakoek; era guztietako produktuetan espezializatutako saltokiek ere formula berbera erabili zuten:
NANCY
KOLKAY
ARBELOA
APELLÁNIZ
COLOWAL
JULIÁN ALONSO
...ETA LANGILE ETA DIRU-SARRERA KOPURUAK ERE GORA EGIN ZUEN.
1994an, 300 langiletik gora zituen eta urtero 6.500 milioi pezeta fakturatzen zituen.


Hala ere, hazkunde horrek hainbat oztopo gainditu behar izan zituen...
Esaterako, bertako saltokien beligerantzia.
60ko hamarkada amaieran eta 70eko hamarkada hasieran kanpaina oso gogorrak egon ziren hedabideetan, eta ekimena zera zela esan zuten...
KOMUNISMO KANTONALA!
Protesta bereziak antolatu zituzten, besteak beste, saltoki txikiek 69tik 70erako gabonetan erakusleihoen itzalaldia egin zuten
Ohitura bidegabeak.
2. KUTXA
Adibidez: erosketak mugatu egin behar izan zituzten, bezero batzuek produktu gehiegi erosten baitzituzten, birsaltzeko asmoz.
Liburuxken erabilera ere zehazki arautu behar izan zen, honelako galderei erantzunez:
Familiako zein kidek erabil dezakete? Soldatapeko emakume ezkongabeen anaiak onuradun izan daitezke? Etxeko langileek nagusien liburuxkak erabil ditzakete?
TXARTEL ZK
TITULARRA
EMPRESA
...egia esan, eta hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, ez ziren horiek izan ekonomatoen urrezko urteekin amaitu zuten arazoak.


OGIA
LEKALEAK
GARBIKETARAKO
KONFITURAK
20
3
2
5

# 3. KAPITULUA
# HORRELA LORATU ZEN









Hori horrela, 1994an FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIOk 25. urteurrena arrakasta ukaezina izan duenaren ustearekin ospatzen duen arren...
...badaki ekonomatoaren formulak iraganeko ekonomia baten beharrei erantzuten diela.
25
1996an produktuak saltzeari uztea erabakitzen du, zerbitzuak eskaintzeko. Benetako iraultza bat da. FUNDACIÓNen "la refundación" esaten diote.
PRESIDENTEAK
69
TOMÁS COLÓN
87
FRANCISCO JAVIER DE ANGULO
LA REFUNDACIÓN
08
JOSÉ LUIS OJEA
17
MIGUEL ÁNGEL VERÁSTEGUI
YOLANDA BERASATEGUI
GERENTEAK
AGUSTÍN ESCRIBANO
VÍCTOR ALLENDE
ESTHER UNCETA-BARRENECHEA
Handik gutxira, EROSKIk bereganatu zituen merkataritza-banaketarako jarduera eta langile guztiak.
F
EROSKI
Aldi berean, ASOCIACIÓN PARA LA PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES SAN PRUDENCIO deritzona eratu zen, gizarte prestazioen eremura birmoldatzeko lehenengo urrats gisa.
F




Une hartan zegoen laguntza- eta lan-prestazioen hasierako plana lau multzotan bana daiteke.
1- GIZARTE ETA LAGUNTZA IZAERAKO ZERBITZUENTZAKO LAGUNTZAK
Jaiotzagatik
Ezkontzagatik
Erretiroa
Etxekoandreari
Desgaitasuna
Istripu-asegurua
24
24 orduko laguntza teknikoa
Adinekoentzako jarduerak
Ikasteko bekak
Etxebizitza
Aholkularitza juridikoa



2- LANEKO OSASUNA
Laneko arriskuak
Enpresako mediku- -zerbitzuak
3- ENPLEGU ZERBITZUA
Enplegatze agentziak
Lanbide heziketa
Langileen hautaketa
Beka profesionalak
4- GASTUENGATIKO DIRU-LAGUNTZAK
Elikadura
Gasolina
Bidaiak
Aseguruak
Bankuak
Adostutako hitzarmenak






1996an gertatu zen "La REFUNDACIÓN" edo berrantolaketa horren ondorioz, la FUNDACIÓNen espiritu berria oso argi utzi zuten erabakiak hartu ziren.
GASTEIZ erdiguneko (ADRIANO VI, 20) egoitza berria, ikusgaitasun eta gertutasun handiagoa ematen dituena.
Finantzaketa plana.
Komunikazio plana. Garrantzitsua, denek ulertzen ez zituzten aldaketak azaltzeko orduan.
Modernotasunaren seinale, txartel plastifikatu bat sortu zuten liburuxka zaharra ordezkatzeko.
MARTA ARRATE
800 BOEtik gora eta 300 babespeko etxebizitza sustatu ziren 2000 eta 2012 bitartean.
Enpresaren gizarte erantzukizuna termino ezezaguna zen garai hartan, eta honela defini daiteke: enpresek gizartea, ekonomia eta ingurumena hobetzeko modu aktibo eta boluntarioan egiten duten ekarpena.
Administrazioak eskaintzen ez dituen laguntzek uzten duten hutsunea betetzea da helburua.
La FUNDACIÓNen esku-hartze eremu berri gisa agertzen da.

4. KAPITULUA

# HORRELA EMAN ZUEN FRUITUA



Egun **FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO**k eskaintzen dituen zerbitzuen zerrenda bi multzo handitan banatzen da:







2- ENPRESA ETA ERAKUNDEENTZAKO EKIMENAK
LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA
Prebentzio zerbitzu mankomunatua eta osasun-laguntza
INGURUMENA
Laguntza aplikatu behar diren lege-baldintzak betetzeko, eta kudeaketa sistemak ezartzeko eta txertatzeko
COMPLIANCE
Delituarik ez egiteko kudeaketa eredu bat diseinatzea eta ezartzea
ENPRESAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA
Diagnostikoa, ekintza plana, kudeaketa sistema eta, besteak beste, eremu hauetan ezartzeko laguntza:
Gobernu korporatibo ona
Etika negozioetan
Aktibo ukiezinak
Uztartzea
LANGILEEN LEHEN HAUTAKETA EGITEA
Laguntza bete gabe dauden postuetarako hautagaiak bilatzeko




BESTE LANPOSTU BAT EMATEA
Langile-berregituraketa prozesuengatik lana galdu duten langileentzako lanpostu berri bat bilatzea
EKITALDIAK ETA SARIAK Enpresen jardun onen inguruan sentiberatzen dugu eta saritu egiten ditugu, hainbat eremutan:
Laneko Arriskuen Prebentzioa
Ingurumena
Enplegua
Gizarte Erantzukizuna
EROSKETA-PROZESUAK OPTIMIZATZEA
Aholkularitza espezializatua
Erosketa-zentrala:
Energia
IKTak
Salgaien garraioa
Hornidurak
ARETOAK LAGATZEA
Bilerak egiteko
Prestakuntzarako


Egun **FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO**k, berrogeita hamar urte betetzen dituenean...
...Arabako 400 enpresa kidetik gora ditu...
...30.000 langiletik gora elkartuz...
...eta 80.000 pertsona inguruko talde bat, haien familiak kontuan hartuz, hau da, probintziako biztanleen laurdena ia.
Eta enpresaren gizarte erantzunkizunaren garapen eta ezarpenean jarduten duen **EUSKADIKO ERAKUNDE** nagusi bihurtzera heldu da...
Historia luzea da, eta bistan da ez dela hemen amaitzen...
Datoko 43.ean jarraituko du


Hona hemen **FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO**ren azken 25 urteetan gertatu diren gauza batzuk
1987
**ALDAIETA**ko antzinaro berantiarreko nekropolia aurkitu zuten (Langara Ganboan)
1990
**CAJA VITAL KUTXA** sortu zen, Probintziako Kutxa eta Udal Kutxaren bat-egitearen ondorioz
1994
Diario
**DIARIO DE NOTICIAS DE ÁLAVA** sortu zen
1995
403
**MARTÍN FIZ**ek munduko maratoi txapelketa irabazi zuen
1998
EL CORREO
42 urte eta gero, **ALAVÉS** lehen mailara itzuli zen
2000
**ETA**k **FERNANDO BUESA** eta bere bizkartzaina erail zituen
2002
**ARTIUM**, Arte Garaikidearen Euskal Zentro-Museoa inauguratu zuten
2008
Tranbia funtzionatzen hasi zen
2009
bat
**BIBAT** inauguratu zuten Arabako **FOURNIER** Karta Museoaren eta Arabako Arkeologia Museoaren bat-egite gisa
2012
VITORIA GASTEIZ
**VITORIA-GASTEIZ**, Europako Green Capital
2013
**GASTEIZ**ko guduaren 200. urteurrena
2015
**LAKUA**ko autobus geltoki berriak **HERRANDARRAK** kaleko behin-behineko geltokia ordezkatu zuen




50 AÑOS URTE
La Fundación
SAN PRUDENCIO

Mauro Entrialgok egindako
komiki hau bertsio libre bat da,
**FUNDACIÓN LABORAL SAN PRUDENCIO:**
**50 URTE ARABAKO INDUSTRIAREN ESKUTIK**
erakusketarena.
**Erakusketa Gasteizko Montehermoso**
**Kulturuneko Ur Biltegi Zaharraren**
aretoan egin zen 2019an,
**Antonio Rivera** eta **Antonio Altarriba** komisario
zituela, eta **José Ibarrola**ren eszenografiarekin.

rpk · ElectraVitoria · EROSKI · Obra Social "la Caixa"

Colabora: araba foru aldundia · álava diputación foral

9 788409 069064